



ARZAREN ESKUTIK, 'BIZITZEKO BESTE MODUAK'

Abenturazale iruindarrak ikus-entzunezkoa eta hitzaldia eskainiko ditu gaur, 20:00etan, Tolosako Kultur Etxean > 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-11-05

VIIURTEA 1.819.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



N. LATABURU

JOXEMARI ITURRALDE IDAZLEA

«Lan handia eskatu dit, giro historikoa berreskuratzen»

TOLOSA 'Jack Destripatzailearen arrastoa' eta 'Riskyren ipuin politenak' lanak aurkeztu ditu; «gustura» dago emaitzarekin z

Homosexualak diren gizon eta emakumeen erakusketa

ZIZURKIL Astelehenean inauguratuko dute, Atxulondon; helburua «homosexualitatea ikusezintasunetik ikusgaitasunera pasatzea» da 5

JAMILA RIENZI GAZTAKZEN KUDEAKETAN ADITUA

«Gatazka harreman osasuntsuak garatzeko aukera bat da»

TOLOSA Gatazken sormenezko kudeaketari buruz hitzaldia emango du, gaur Nura elkartearen 4

Mindegia eta Larretxea aizkolarien arteko apustua, igande honetan

TOLOSA Zezen-plazan ariko dira; 60 ontzako 20 enbor ebaki beharko dituzte 7

ALONSO PULIDO EMOZIOEN HEZITZAILEA

«Emozioen bidez transmititzen ditugu benetan gure mezuak»

TOLOSA Bihar hitzaldia emango du Kultur Etxean 3



HITZAK bi sarrera du

LAGUN ARO GBC BIZKAIA BILBAO BASKET
saskibaloj partidarako

Azaroak 8 • Igandea • 12:30ean
Donostiako Ilunben



sarrerak




HITZAK 2 sarrera pare ditu

AKABA BERA BERA ÜSKÜDAR
Europako errekoa partidarako

Azaroak 7 • Larunbata • 16:30 ean • Donostiako Bidebietan

TXOKA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira

E Elkarrizketa**JOXEMARI ITURRALDE** | Idazlea

N. LATABURU

«Giro historikoa berreskuratzeko lan eskergea eskatu dit liburuak»

Kultura » 'Jack Destripatzailearen arrastoa' da tolosarraren azken eleberria; 'Riskyren ipuin politenak' ere oraintxe kaleratu du.

NOELIA LATABURU

Zaila da Joxemari Iturraldere (Tolosa, 1951) bibliografia osoa zenbatzea. 1983an argitaratu zuen bere lehen lana eta ordutik eleberririk, ipuinak, itzulpenak, komunikabideetan kolaborazioak, ... kaleratu ditu. Euskaraz eta euskararekin etengabe lanean, oraingoan *Jack Destripatzailearen arrastoa* kaleratu du eta «oso gustura» azaldu da. Patrizio Dagerrezahar mutikoaren eskutik misteriozko istorio batean murgiltzen du irakurlea.

'Jack Destripatzailearen arrastoa' liburu bera ere misteriozko jostia...

Bai, Jack Destripatzailea benetan existitu zen, XIX. mende amaieran. Orduan Ingalaterra munduko potentziarik handiena zen, Victoria erreginaren agindupean, baina ustelduta zegoen barrutik, gainbeheran hasia ordurako. Teoria asko daude esplikatzeko zergatik sortu zen Jack Destripatzailea, nor izan zen, zergatik hiltzen zuen, nahiz eta hiltzaile hori ez zuten inoiz harapatu. Nik, datu historikoetan oinarrituz, nobela bat asmatu dut, hamazortzi urteko mutil euskaldun bat protagonista jarri. Mutil

hori, zoritxar baten eraginez, hilketa horiek gertatu ziren auzoan dago orain bizitzen, Londresko Whitechapel auzoan hain zuzen ere, eta Jack Destripatzailearen arrastoaren atzetik hasiko da mugitzen. Datu historikoak oinarrituz hartuta garai hartako giroa berreskuratzeko, intriga eta misteriozko nobela bat idatzi dut.

Oso ezaguna den pertsonaia hartu duzu oraingoan abiapuntu. Dagoeneko existitzen den norbaitek harira aritzeak gauzak zaildu egin al dizkizu?

Nobelaren giro historikoa ondo berreskuratzeko aurretik lan handia egin behar izan dut. Esan beza-

Datu historikoetan oinarrituz nobela bat asmatu dut, protagonista mutil euskaldun bat da

la, nobelan azaltzen diren datu historiko guztiak benetakoak dira, baita leku izenak, kale izenak, pertsonaien izenak, hildakoak... Horrek irakurketa lan eskergea eskatu dit aldeztu aurretik, baina oso gustura egin dut. Orain arte Jack Destripatzaileari buruz kaleratu

diren liburu zientifiko garrantzitsuenak irakurri ditut liburu hau prestatzen ari nintzanean, bideoak eta pelikulak ikusi ditut, eta Londresen bertan museoak bisitatu. Whitechapel auzo osoa ere errekorritu dut behin eta berri.

Ez da Londres eszenatoki bezala aukeratu duzun lehen aldia...

Nik idatzitako liburu asko hemen daude kokatuta, Euskal Herrian, baina badituz liburuak hemendik kanpo ere gertatzen direnak: Polonian, Finlandian, Estatu Batuetan, Suedian, Ingalaterran... Oraingo nobela honetan istorioaren gehiena Londresko auzo batean suertatzen da, Whitechapel deituriko auzoan hain zuzen ere.

Gustura al zaude emaitzarekin?

Bai, oso gustura geratu naiz. Eta liburuak irakurri dutenek esan didatenez, oso gustukoa izan dute, entretengarria eta erakargarria egin zaielako.

Oso denbora gutxian bi argitalpen: 'Riskyren ipuin politenak' ere idatzi duzu. Bigarren honetan zer jaso duzu?

Horrela suertatu da. Idazleok liburuak idatzi egiten dugu eta gero, argitaletxeek nahi dutenen kaleratzen dute. Beste alde, normalean liburuak pilatzen joaten dira Durangoko Azoka garaia inguratzen denean. Liburu honetan nire haur era gazte-liburu askotan protagonista izan den mutila azaltzen da berriaz ere: Risky. Oraingo hone-

tan, berak eta bere ikasgelako lagunek, irakaslearen gidaritzapean, elkarri kontaktatzen dizkiote inoiz entzun edo irakurri dituzten ipuin politenak, beren modura laburtuz. Hori dela eta, bakoitza saiatzen da aurrekoak kontatu duen ipuina baino politagoa izan dadin berea, eta joko moduko batekin amaitzen da kapitulu bakoitza, ikasleak eta, kasu honetan, baita irakurleak ere asmatu beharrekoa.

30 urte daramatzazu luma eskuetan. Langile nekazaria zara...

Hogeita hamar urte paseak dira iada idazten hasi nintzenetik; izan ere, denbora agudo asko joaten da. Idazleok irakurri eta idatzi egiten dugu, hori da gure lana eta, nire kasuan behintzat bai, horixe da gehien gustatzen zaidana.

Hainbeste lanen artean... baten bat gogoratu al duzu bereziki?

Kaleratu nuen lehen liburuak. *Dudular* deitzen da eta hainbat literatura lehiaketa irabazitako ipuinez osatutako bilduma da. Ilusio izugarria egin zidan kalean ikusi nuen liburu hori publikatuta. Azala ere bitxia du, Egipto bisitatu nuenean, El Kairoko auzo batean erosi nuen ilustrazio berezi batekin dator.

Berezko ekoizpenez gain, makina bat itzulpen egin dituzu. Zer nahiago?

Dozenatik gora dira nik urte hauetan euskaratu ditudan liburuak, beti ere jatorrizko hizkuntzetatik,

» DI-DA BATEAN

- **Idazle bat.** Ernest Hemingway.
- **Liburu bat.** *Erromatar Inperioaren gainbehera eta erorketa* (Edward Gibbon).
- **Film bat.** *Primera plana* (Billy Wilder).
- **Abeslari bat.** Bob Dylan.
- **Komunikabide bat.** BBC.
- **Kazetari bat.** Günter Wallraff.
- **Politikari bat.** Gandhi.

baina iada ez dut gehiago itzultzaile lanik egiten, nahiago dut neronek sortu besteek idatzitakoak itzuli baino.

Euskarazko literatura osasuntsu al dago ala hau ere krisian?

Nik uste osasuntsu dagoela, idazle ugari gaude gaur egun eta liburu asko publikatzen dira azkenaldi honetan.

Eta irudimena?

Ez. Irudimena eta literatura beti joan dira elkarrekin ondo uztartuta.

Durangoko Azoka ate joka dugu. Garai honetan argitalpen kopuruak ere gora egiten du. Nola aurreikusten duzu aurtengoa?

Ez dakit. Ez diot oraindik kasu gehiegirik egin aurtengo Durangoko Azokari, baina aurreko urte-

Baikorrak izan behar dugu, dudarik gabe euskarazko literaturak badu etorkizuna

etakoak ikusita uste dut antzekoa izango dela, hau da, liburu berri asko aterako direla.

Gazteekin egiten duzu lan. Euskarazko literaturak ba al du etorkizunik?

Bai, dudarik gabe. Baikorrak izan behar dugu.

» FITXAK

■ **Izenburua.** *Jack destripatzailearen arrastoa.*

■ **Egilea.** Joxemari Iturralde.

■ **Argitaletxea.** Ibaizabal.

■ **Orrialde kopurua.** 207



■ **Izenburua.** *Riskyren ipuin politenak.*

■ **Argitaletxea.** Elkar.

■ **Norentzat.** 10 urtetik gorakoentzat.

«Emozioen bidez egiten dugunean, orduan transmititzen dugu benetan gure mezua»

ALONSO PULIDO Emozioen hezitzailea

Gizartea » 'Bihotzetik hezi' hitzaldia emango du bihar, Kultur Etxean, 19:00etan, eta etzi, tailerra barrearen eskolan.

INIGO TERRADILLOS

Tolosako barrearen eskolan antolatuta, *Bihotzetik hezi* hitzaldia izango da bihar, Kultur Etxean, 19:00etan. Alonso Pulido emozioen hezitzaileak emango du hitzaldia. Bere eskarmentuan oinarrituta, «sentimenduak transmititzea garrantziaz» ariko da. Halaber,

larunbatean tailerra ere izango da barrearen eskolan bertan. 943 118669 zenbakira deituta eman ahalko da izena.

Nondik dator bihotzetik hezitzaileena?

Askotan ikusi izan dut gurasoak heziketan dauden hutsuneen arduradun irakasleak egiten edota alderantziz. Baina, horrela ez da ezer konpontzen. Hutsune ugari daudela jakinik, nolabaiteko irtenbidea emateko helburuz aztertzeko hasi nintzen, eta horrela sortu zen bihotzetik hezitze kontua.

Eta nola hezitzen da bihotzetik? Gauza da, garunetik baino, biho-



HITZA

tzetik egin behar dugula, eta garrantzitsuena ez da teknika jakitea, hori norik erabiltzen duen baizik. Izan ere, alperrik da pertsona ba-

tek balore batzuk erakustea berak ez baditu praktikan jartzen. Beraz, emozioak transmititu behar ditugu. Horrekin loturik, gorputza landu behar dugu, hau da, energia bannatu behar dugu bihotzeko zonaldera, gizakion ezaugarriak dauden lekura. Horrela egiten dugunean, gauzek funtzionatzen dutela nabaritu dugu.

Hau guztia praktikara emanez, zein adibide eman zenezake?

Esaterako, ikasleek ikusten badute emozioz esaten dituzula irakatsi beharrekoak, errazago barneratuko dute. Hau da, zuk benetan sentitzen duzula nabaritzen badute, be-

raiek garrantzia emango diote, eta euren interesa bereganatuko duzu. Emozioek garrantzi handia dute, zuk ezin baituzu bakeaz hitz egin jarrera oldarkorrean edo builaka edota zorientasunaz hitz egitea arpegi triste batekin, esaterako ez du batere zentzurik. Mezu horiek ez dira iritsiko behar bezala.

Eta hau bizitzako beste alorretara ere eraman genezake?

Behar bezala transmititzen ez bada, hau da, emozioen bidez, ez da iritsiko mezua, eta hau alor guztietan aplikatu daiteke. Esaterako, gurasoentzat oso kontuan hartu beharreko da, euren seme-alaben heziketarako. Semea edo alaba bihotz bat bezala ikusten dutenean eta ez gorputz bat bezala orduan hasiko dira gauzak aldatzen.

Nolako emaitzak izan dituzu?

Oso onak. Jendea harriruta gertatzen da, teknika sinple batzuen bidez nola lor daitezkeen gauzak aldatzea ikusita.

Laburrak

TAKen parte hartzeko aukera zabalik dago

ARRAUNA » Tolosaldeko Arraun Klubetik azaldu dutenez, jubenil mailako neskek eta seniorrek izena emateko aukera zabalik dute. Azaroan zehar, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, egin ahalko da, Zerkausian, 20:00etan.

Pello Odriozolaren aldeko elkarretaraztea, gaur

POLITIKA » Hilabeteko lehen ostegunero bezala, gaur elkarretaraztera deitu dute Lizardi elkarteek Pello Odriozola aske uztea eskatzeko. Elkarretaraztea 19:30ean izango da Plaza Zaharrean.

'Egunkaria'-ren aldeko batzordearen bilera

'EGUNKARIA AUZIA' » Laster hasiko da *Egunkaria auzi*-ko sumario nagusiaren epaiketa. Bost lagun dauzke inputatuta, eta tartean Martxel Otamendi eta Begoña Zubelzu eskualdekoak. Hala, gaur batzarra egingo dute 20:00etan, Kultur Etxean, epaiketaren aurrean informazioa jaso eta antolatuko diren ekimenen inguruan hitz egiteko.

The Kluba taldea ariko da bihar, Bonberenean

Musika » Etzi Gargantas desgarradas eta Klabo oxidadore kontzertua izango da; 22:30ean hasiko dira zuzenekoak.

ERREDAKZIOA

Ohi bezala zuzeneko emanaldirik ez da faltako azaroan ere Bonberenean. Astebururo izango dira kontzertuak, bai eskualdeko taldeenak, bai eta atzerrikoak ere, eta musikari dagokionez ere, estilo askotako taldeak igoko dira Bonbereneako eszenatoki gainera.

Asteburu honi dagokionez, hiru talde ariko dira. Bihar The Kluba taldea entzuteko aukera izango da, eta etzi, berriz, Gargantas desgarradas eta Klabo oxidado taldeak ariko dira. Bi egunetan 22:30ean hasiko dira kontzertuak.

Lehen aldiz izango da Bonberenean The Kluba taldea. Juantxo Skalariren proiektu berria da, eta taldearen izen bera daraman diskoa, hau da, *The Kluba* aurkeztuko



The Kluba taldeko kideak. HITZA

dute. Skalarriak dakar gogora taldeak, baina aire berritu batekin datoz: ikuspegi musikal zabalagoa, musika bandaren bestelako izaera eta ikuskizunari eta originaltasunari garrantzia emango dion zuzeneko taularatzea.

Bestalde, etzi Tolosako Gargantas desgarradas taldea izango da Bonberenean. *Chicos de la nada* izeneko diskoa aurkeztuko dute. Klabo Oxidado taldeak, berriz,

Oxidate Despacio izeneko diskoa erosten musika aurkeztuko du.

Kontzertuak astebururo

Datorren astean, Lain, Ydilia eta Anje Duhalde ariko dira. Hilaren 20an Zura eta Hedoi Etxarte eta 21ean El desvan del macho eta Decapante; hilaren 27an Desordutan eta Inerve taldeak eta 28an Basque Country phraons eta La otra gloria izango dira Bonberenean.

Sagarra eta ondoz betetako raviolia etzi, Zerkausiko azokan

Gizartea » Hernalde jatetxeke Felix Garridok prestatuko du, eta herritar guztien eskura izango da, 11:30ak aldera.

ERREDAKZIOA

Zerkausiko merkatua indartu asmoz hainbat ekintza ari dira burutzen larunbatetan, eta aste honetan, Tolosako Hernalde jatetxeke Felix Garridok sagarra eta ondoz betetako raviolia egingo du.

09:30ean hasiko da Zerkausiko saltzaileei produktua erosten. Ondoren, prestaketa lanak bertan egingo ditu eta 11:30ak aldera bertaratuek probatzeko aukera izango dute.

Berritasun moduan merkatuan, oliba olio birjina extra, Arroniz barrietateko egongo da, eta hau urte guztian zehar izango da. Eta, horretaz gain, abendura bitarte piper barietate ezberdinak salduz saltzaile bat ere izango da larunbate-ko azokan.

Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

TORIBIO ARRIETA EPELDE

Atzo hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Arimaren zuzendaria: Manuel Aizpuru; emaztea: Dolores Zaietza; seme-alabak: Mikel, Joxe Ramon eta Idoia Azkaraite. Ixidro eta Nerea Uranga eta Juan Joxe (?); bilobak: Lur, Oihan eta Izeia; ezkon anai-arrebak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoiiz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzetzela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, AZKOITIKO parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara.



AZKOITIA
2009ko
azaroaren 5a

Helbidea: Iru Arte, Teskuina
Oharra: Gorpu Azkoitiko Carmona Bellatokiaren egongo da.

Asier Gallegok Espainiakoan lortutakoa nabarmendu dute

Halterofilia » «13 urte besterik ez dituela, bere marka 6 kilotan hobetu eta 5. postua lortu zuen», diote Danena-Olaederratik.

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederra Halterofilia Taldeko pultsulariek Espainiako 17 urtez azpiko Txapelketan parte hartu berri dute. Danena-Olaederratik Asier Gallegok lortutako emaitza nabarmendu dute. «13 urte besterik ez dituela, bere marka 6 kilotan hobetu zuen eta merezitako 5. postua lortu 50 kiloko mailan», azaldu dute halterofilia taldek.

Gainontzeko pultsulariak beraien marken azpitik aritu zirela gaineratu dute. 56 kiloko mailan, Aritz Erizek 5. postua lortu zuen, Julen Guerrerok 11. postua eta Alain Moledak 12. postua. 62 kiloko mailan Adrian Sasiainek 13. postua lortu zuen.



Asier Gallego pultsularia ahalegin batean. HITZA

Lehen postua Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan

Danena-Olaederrakoek pasatu berri den asteburuan ere Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan, Florian Simon Memoriala, lehiatu ziren Zarautzen. Taldeak lehenengo postua lortu zuen pultsulari

hauekin: Teddy Martínez, Ekaitz Kortajarena, Francisco Gonzalez, Javi Gonzalez, Jon Sasiain eta Igor Sasiain. Banakako sailkapenean, hau da, Florian Simon Memorialan, Igor Sasiainek irabazi zuen, Ekaitz Kortajarenaren eta Jon Sasiainaren aurretik.

«Gatazka zeure burua hazteko aukera bat da»

JAMILA RIENZI » Antropologoa eta gatazken kudeaketan aditua

Tolosa » Gatazken sormenezko kudeaketari buruzko hitzaldia emango du gaur Jamila Rienzi Nura elkartean.



HITZA

IMANOL GARCIA

Legazpin sortu berri den Oripavi elkarteak, bizitzarako orientatibidea helburu duenak, aurkezpen publikoa egingo du asteburu honetan eta tartean Jamila Rienzi antropologa italiarrak parte hartuko du antolatutako ekitaldi eta tailerretan. Rienzi Gipuzkoara etorri dela aprobetxatuz, Oripavi elkartearekin harreman duen Tolosako Nura elkartean antropologa italiarra gonbidatu du hitzaldi bat ematera. Gaur izango du hitzaldia eta Gatazken sormenezko kudeaketa du izenburua. Nura elkartearen egoitzan izango da, San Frantzisko etorbidearen 47. zenbakian, 18:30ean.

Nola definituko zenuke gatazka?

Niretzako gatazka zeure burua hazteko aukera bat da, pertsonen arteko harreman osasuntsuak gartzeko eta bestearen kontzientzia gartzeko. Gatazka indarkeriaren ezberdina da, gerraren ezberdina. Gatazka bizi dezakezun zerbait da, besteekin harreman osasuntsuagoak, hobetoagoak eta apalagoak gartzera eramaten duguna.

Nolatan izan daiteke gatazka bat norbera hazteko eta gartzeko modu bat?

Hazteko aukera bat izateko, lehendabizi denok nahi izan behar dute gatazka bizitzea, ezin duzu ihes egin. Bigarren, helburua izan behar du guztien beharrak kontuan hartzea. Hau da, ikuspegi batera goaz, non bakoitzaren beharrak begiratuko ditugun eta saiatuko garen bilatzen irtenbide bat edo egoeraren eraldaketa bat guztien beharrak asebeteko dituen.

Eta nola egiten da bide hori?

Oinarritzko hiru pauso kontuan hartu behar dira. Lehenbizi, zure emozioak eta zure beharrak ezagutzeko, eta irekita egotea bestearen emozioak eta beharrak entzutea. Bigarrenik, komunikazioa, guztien bihotza dena. Indarkeri gabeko eta eraikitzailea den komunikazioaren bitartez bestearekin zeure burua hobeto ezagutu dezakezu eta saiatu daiteke irtenbide bat bilatzen guztien beharrak asebeteko dituen. Beraz, hirugarren pausoa sormena da, hau da, sormenean oinarritutako irtenbideak bilatzea.

Zein dira gatazka ohikoak?

Hemen hitz egiten ari garen gataz-

kak pertsonen artekoak dira eta talde txikietan, hau da, familia, eskola, komunitatea, lantaldeak, elkarteak... Eta testuinguru hauetan komunikazioa da gakoa.

Eta maila horretan zer motatako gatazka izaten dira?

Arrazoiak ezberdinak izan daitezke. Izan daitezke balore-gatazka. Adibidez, lan asko egiten dut ere immigrazioaren inguruan eta hori ikusten da izan daitekeela bateraezintasuna behar ezberdin artean edo balore ezberdinen artean, kulturen artean edo helburuen artean. Gatazken kudeaketan ikusiko duguna da askotan guztiok behar berdina dugula eta ez dugula ikusten behar hori asetetzeko modu ezberdinak daudela. Askotan pentsatzen dugu nik hau egin nahi dut modu honetara eta besteak berdin eta bateraezintasun bat sortzen da. Baina ikertzen badugu agian beste modu batzuk topatzen ditugu behar hori asetzeko. Eta lana hori da: ikustea zer nahi duzun zuk, zer nahi duzan nik eta nola asetuko dugun biok bakoitzaren behar hori. Ez da beti posible irtenbidea topatzea. Prozesuan konfiantza izan beharra dago horretarako.

Aurre hartzea garrantzitsua izango da gatazka ez izateko.

Gatazken kudeaketa hau pedagogia bat bezala da. Helburua da indakeria ez iristea, indakeria izanik beste suntsitu nahi izatea. Gatazka gogorra da, mingarria batzuetan, baina helburua ez da beste suntsitzea, baizik bestearekin harremanak. Harremanak asko baloratzen dira. Esaten duzu harreman hori nahi duzula eta horregatik lan egiten duzu modu osasuntsu batean, sormena bultzatzen duen modu batean.

Tolosan egingo duzun hitzaldian zer azalduko duzu?

Elkarrizketan esandakoak azalduko ditut. Bestalde, gustatuko litzaidake hitzaldiaz gain jardueraren bat egitea sormenezko kudeaketaren inguruan, baina hori etortzen den jendearen arabera izango da.



Lur-jausi gehiago ez izateko

ALEGIALDEA » Alegia eta Amezketan bitarteko errepidean ezponda bat konpontzen dihardute aste honetan. Orain hilabate eta erdi lur-jausi bat izan zen leku horretan eta orain mendi magalaren oinarriari harriak

jartzen ari dira. Lanegatik errepidearen alde bat itxita dago eta beraz semaforo batzuk jarri dituzte trafikoa bideratzeko. Lanak aste honetan bertan bukatuko dituztela azaldu dute. I. GARCIA

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Panpina.** Joan zen urriaren 31n, 13:00ak aldera, Tolosako Aroste-gieta kalean Iratiren panpina galdu genuen. Txintxirrin hotsa aterazten duen elefante itxurako txo-txongilo koloreduna da. Aurkitu duenak deitu dezala mesedez

657 704 878 telefono zenbakira.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako enpresa batek zerbitzaria behar du. Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko neska bat behar du. Eskarmentuduna. 661 463 193.

@ Facebook. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eskualdeko egunkaria Facebook-en dago. Beraz, albisteak, argazkiak, bideoak, audioak, iritziak, eztabaidak... ikusteko aukera izango duzu aurrerantzean. Facebook-en sartu, eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza jarri besterik ez duzu egin beharko egunkariaren profilerantz. Bertan iritziak eta iradokizunak sartzeko aukera izango duzu. www.tolosaldekohitza.info



Maria Angeles Lazkano eta Koldobike Mujika erakusketaren aurkezpenean. E. MAIZ

'Emakume eta gizon homosexualak historian zehar' aurkeztu dute

Zizurkil » Astelehenetik aurrera, hamabost egunez, Atxulondo kultur etxean ikusgai egongo da erakusketa.

ENERITZ MAIZ

Atzo Zizurkilgo pleno areto nagusian *Emakume eta gizon homosexualak historian zehar* erakusketa aurkeztu zuten. Bertan, Maria Angeles Lazkano alkatea eta Gehituko ordezkari bezala, Koldobike Mujika izan ziren. Beraiek erakusketaren nondik norakoak aurkeztu zituzten.

Erakusketa, azaroaren 9an zabalduko dute arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Hamabost egunez egongo da zabalik, hau da, azaroaren 20a bitarte. Astelehenetik ostiralera, goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldetan 16:00etatik 20:00etara.

Guztira 31 panel izango dira ikusgai egongo direnak; 15 emakumezko eta 16 gizonetzko osatuak. «Panel hauetan, ospetsuak izan diren pertsonaiek agertzen dira, baina denek komunean dute euren homosexualitatea», azaldu du Koldobike Mujika Gehituko ordezkariak.

Panelak, hiru hizkuntzatan eginak daude, euskaraz gain gaztelaniaz eta frantsesez irakurtzeko aukera izango da. «Hiru hizkuntzatan egitearen arrazoia Gehituk, Frantses Estatuko Homosexual kolektibo batekin harremanak di-tuela da» gaineratu nahi izan du. Eta «erakusketa ibiltaria denez, egunen batean beste aldera ere eraman dezakegu». Hainbat herri-

tan eduki dute erakusketa hau eta oraingoan, Zizurkili egokitu zao.

Hiru irizpide izan dituzte kontuan: 31 panel osatzeko, parekidesuna bilatu nahi izan dute, bestetik, garai guztiak hartu nahi izan dituzte (k.a. VI. mendetik gaur arte) eta azkena arlo guztiak kontuan hartzea izan da; kirola, zinema, literatura...

Erakusketaren helburuak

Erakusketa honek dituen helburuak zehaztu zituen jarraian Mujikak: «Pertsonaia hauen homosexualitatea, ikusezintasunetik, ikusgaitasunera pasatzea da». Memento honetan, oraindik, «normalizatzeko prozesu batean gaude eta eskubide legalak eskuratu ditugu eta alde horretatik berdinak gara gainontzeko herritarrekin baina herrian homosexualitatea normal ikustea eta normalizazioriristeko oraindik lan asko egiteko dago», gaineratu nahi izan zuten.

Bitartean, honelako ekitaldiak antolatzera behartuta daude. Eta erakusketa hau horren erakusgarri da. «Pertsonaiek ospetsuak dira eta ezagunak bere arlo pertsonalean; literaturan, zineman, kirolean... mojak eta apaizak ere badira tartean eta horiek ezagutzen ditugu baina ezkutuan egonda euren homosexualitatea», dio Mujikak.

Haienganako, nolabaiteko justizia historikoa egin nahi dute. Ezkutuan bizitu behar izan zuten beraien homosexualitatea eta askok sufritu egin zuten eta beste batzuk, heriotz zigorra ere jasan behar izan zuten. Ekarpen xume honekin, ikusgaitasunera pasatzea izan dute helburu. «Gogoratu behar dugu, homosexualitatea ez dela

gaurko kontua. Gizakia gizaki denetik existitzen da homosexualitatea», azpimarratu nahi izan zuten.

Homosexualitatea normalizatu bitartean, aldarrikatzen jarraitu beharko dugula ere garbi utzi nahi izan zuten. Bukatzeko, Zizurkilgo Udalarai «eskerrak» eman nahi izan zizkion eta ekitaldi kultural eta aldi berean hezitzaile hau Zizurkilera ekartzegaitik.

Historian, jende ospetsu asko

Sokrates, Alejandro Magno, Sor Benedetta, San Agustin, Carmen Burgos, Leonardo Da Vinci, Katalina Erauso, Migel Angel, Jane Adams, Virginia Wolf, Jodi Foster, Federico Garcia Lorca, Chavela Vargas... eta beste hainbat dira erakusketa honetan daudenak.

Hainbat pilota partida asteburuan Bearzanan

Villabona » Ostiralean 17:15ean eta larunbatean 15:30ean hasita, pilota partidak izango dira Bearzana pilotalekuan.

E. MAIZ

Asteburuero kiroliek ez da falta izaten eta oraingoan ere aukera zabalago dago pilota partidei dagokienean. Ostiralean, 18:30ean hasita hiru pilota partida izango dira kadeteen mailan.

Binaka ariko dira Behar-Zana Ieko Mikel Otaño eta Iñaki Otaegik, Azpeitiko Ilunpe taldekoen aurka jokatu dute. Bigarren partiduan, banaka, Behar-Zanako Aitor Ormazabal *Artzaia*k, Alegiak Intxurren aurka jokatu du. Eta bukatzeko, binaka, Behar-Zana 2ko Ander Nazabal eta Pello Alkain, Getariko Gure Txeruren aurka arituko dira.

Honez gain, hiru partida hauen aurretik, 17:15ean hasita Eskolarteko benjamin eta alebin mailako beste hiru partida izango dira. Larunbatean, 15:30ean hasita es-

kolarteko bi pilota partida izango dira eta ondoren 17:00etan, Alebin eta Infantilen Gipuzkoako Errendimendu Txapelketari dagokion lau pilota partida izango dira, guztiak ere banaka. Gaur egun, Villabonako pilotalekuan, ia 80 eskuzko pilotari aritzen dira eta guztiak pilota partidak jokatzeko dituzte.

Bestetik, Iñaki Lizaso eta Laurent Errekak, aste honetan atsedena izango dute eta datorren astean afizionatuaren lehen mailako final-laurdenak jokatu ditzute Eibar-ko bikotearen aurka. Ligaxkan bi partida galdu ostean, final-laurdenak irabazteko aukerak ikusten dituzte.

Eta bigarren mailan jokatzeko ari ziren hirukotea, Jon Ander Esnaola, Ander Aranburu eta Arkaitz Iraeta, ligaxkan, hirugarren geratu zuten eta jaitsiera fasea jokatu beharko du. Hala ere, beraien maila izanda, erraz gainditu beharko lukete eta datorren denboraldian, berriz ere bigarren mailan aritzeko moduan izatea espero da, horrela, lehen mailara igotzeko borrokan jarraitu dezaten.

Olaederran, areto-futboleko partidak

E. MAIZ

Villabonako Txanpaka Kirol Elkartearen hiru talde daude eta asteburu honetan, etxean jokatzeko egokitzen zaie. Ostiralean, 20:30ean hasiko dira Olaederrakiroledegian jokatzeko, etxeko Urrieta Jatetxea, Idiazabal taldearen aurka.

Aldiz larunbatean, urriak 7, Gopartaldea, Lauburu Ibarraren aur-

ka lehiatuko da goizez, 12:15ean hasita. Arratsaldean berriz, La-kunza etxeko taldeak, La Bellotaren aurka jokatu du. Partida, Olaederra kiroldegian izango da 16:30etatik aurrera.

Txanpaka Kirol Elkartetik, jarraitzaileei kiroldegira gerturatzeko deia luzatzen zaie animoekin, garaipenak eskuratzen lagundu dezaten.

Gorrotxategi PRODUKTUAK

Turroi sorta **29 €**

- Tolosako xaxuak
- Txakolin txakolatea
- Jogurt turroia masusta gorriarekin
- Aktikoa eta merxika turroia

Turroi askotarikoak **19,50 €**

- Mandarina turroia bollur zuriarekin
- Txakolate turroia almindarekin
- Merxika turroia txakolatearekin
- Jogurt turroia masusta gorriarekin

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO SASKIAK

Saskia **4 €**

- Osasun-erakunde andia-gazta, 200 g
- Nafarroako gibel-erak, 150 g
- Basotxeri besoa, 100 g
- Etxeko txakolin txakola 200 g
- Sagar dulzera, 200 ml
- Agurriko piperrak, 370 ml
- Celtariko hegaltzera, 170 g
- Zaindari zurik, ekitaldiak, 900 g

SASKIA 59 €

- Idiazabalgo andi-gazta, 250 g
- Fogus Bioko, 115 g
- Etxeko txakolin txakola 200 g
- Basotxeri besoa, 100 g
- Milarene ezlia, 200 g
- Agurriko piperrak, 370 ml
- Celtariko antzara, 170 g
- Pikillo ezlia, 250 g

Erosi berriaren plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte

943-30 43 45

www.berria.info

harpidetza@berria.info

Bidalketa gastuak daude

saskia!

AUKERA EZAZU,
HITZ EUSKARAZ
berria

Antxon Arzak 'Bizitzeko beste moduak' erakutsiko ditu gaur, Kultur Etxean

Tolosa » Nairobitarra taldeak abenturazale iruindarraren ikus-entzunezkoa eta hitzaldia antolatatu ditu.

REBEKA CALVO

Antxon Arza iruindarra Tolosan izango da, gaur 20:00etatik aurrera Kultur Etxean, azken urteetan garatutako ikus-entzunezkoa aurkezteko.

Nairobitarra taldeko kideek gonbidatu dute gurera *Bizitzeko beste moduak* izeneko lana eskaintzeko. Lanak 45 bat minutu irauten ditu eta bertan Arzaren aben-

turak dira nagusi. Izan ere, iruindarra abenturazalea eta enpresa-gizona dela dio. Urkan Kayak enpresako sortzailea da eta baita TVEko *Al Filo de lo Imposible* saio-ko partaidea ere, beste hainbat egitekoen artean.

18 urte zituela lauki-formako gatzak saltzen hasi zen eta horrekin lortutako diruarekin bidaiak egiten zituen, beti ere «bidaien alderik gogotsuenari» helduz, hau da Alpeetan eskiatuz, Andean eskalatuaz... «Bidaia hauek guztiak munduko kultura eta jende desberdina ezagutzeko aitzakia izan dira beti», argitu du Arzak.

2000. urtean, dena den, Venezuelako Yuruani ibaia piraguare-

kin jaisten ari zela, 15 metroko jauzi batean bi orno hautsi zituen eta paraplegiko geratu zen.

«Oinez iritsi ezin duan lekuetarako gurpildun aulkiak eramaten nau, eskiatzeko aulkiarekin ere elurretan irrastaka mugitu naiteke, egokitutako urpekaritzak grabitaterik gabe banengo bezala aritzeko aukera ematen dit, piraguarekin ibai, laku eta itsasoetan bidaiatu naiteke orain ere. Eta asmaketa berri batek garrantzi handia hartu du nire bizitzan: quad-a. Harekin eta lagun onen konpainiarekin, Saharamarokorra edo Gobi eta Taklamakan basamortu txinatarrak zeharkatzeko aukera izan dut», nabarmendu du.

«Paraplejiko ere lanean jarraitzen dudala erakutsi nahi dut»

ANTXON ARZA » Abenturazalea

REBEKA CALVO

Zer ikusi ahal izango dugu 'Bizitzeko beste moduak' ikus-entzunezkoan?

45 minutuetako lana da. Lehenik eta behin gurasoekin hemen inguruan egiten genituen ibilaldiak bildu ditut. Lagunartean egiten genituen eskalatzeko saioak ere ikusi daitezke, iraupen-eskia, mendiko bizikleta eta abarreko irudiak... Nepalen 1984. urtean eskalatzeko ari nintzela hartutako tifusaren irudiak ere bildu ditut. Gaixotasun honen ondorioz oso ahul geratu nintzen eta orduan hasi nintzen piraguarekin ibiltzen besoak lantzen.

Mendia ibaiarengatik aldatu zenuen.

Mendiko pentsakera ibaira pasa genuen eta horretan ari ginela *Al Filo de lo Imposible*ko lantaldea ezagutu genuen eta *Ur zuriak* izeneko erreportajea egin genuen. Hau eta gero erabaki genuen piraguarekin bost kontinenteetan ba-



HITZA

rrena joan eta anbizio handiagoko erreportajea egitea. Hau guztiare ere ikusi daiteke *Bizitzeko beste moduak* ikus-entzunezkoan.

Venezuelan izandako istripuaren irudiak ere bildu dituzu. Zer da honekin lortu nahi duzuna?

Irudi gogorak dira, niretzat bai,

behinik behin, baina honekin, paraplejiko geratuta ere lanean jarraitzen dudala eta piraguan, eskian, urpean igeri egiten eta quadrean ibiltzen jarraitzen dudala erakutsi nahi dut.

Bizitzeko modu desberdinak daudela erakutsiz, alegia.

Kultura desberdinak ezagutzekoan bizitzeko modu desberdinak ezagutu ditut, bai, baina ikus-entzunezkoarekin natura bizitzeko modu desberdinak daudela ere erakutsi nahi dut. Era berean, istripua izan eta gurpil-aulki batean egonda ere gauza asko egin daitezkeela nabarmendu nahi dut. Lagunak eta lankideak ezinbestekoak direla ere argi utzi nahi dut; lehen garrantzitsuak ziren eta orain ere gehiago. Taldean lan egitea ere oso garrantzitsua da, beraiek atera ninduten istriputik bizirik eta beraiek egindako lekualdatze txukunarengatik ibili ahal naiz pixka bat.

Herria Abianek bilera egingo du, gaur

Tolosa » 19:00etan bilduko dira aldeketa sozialaren aldeko plataformako kideak LABen egoitzan.

ERREDAKZIOA

Aldaketa sozialaren aldeko Herria Abian plataformak bilera antolatatu du gaurko, 19:00etan LAB sindikatuaren Tolosako egoitzan (Gorobel Pasealekua, 29).

Aldaketa soziala zehazteko bilerak

Herria Abian plataformak «Euskal Herriak eta bere langile klaseak behar duten aldeketa soziala zehaztu nahi du aurtengo ikasturtean», eta hori gauzatzeko herritar guztien ekarpenak jasotzeko nahi dituzte gaurko bileran.

«Oinarririk bideratutako prozesu parte-hartzaile baten bitartez aldeketa hori zehazten joango den tresna osatzea dugu helburutzat», gaineratu dute.

Babarrun jatea antolatatu du iganderako Hauspoak

Ibarra » 14:30ean hasiko dira bazkaltzen; txartelak Zubiaurre, Sendi-Ekintza eta Atari tabernetan eskura daitezke.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Hauspibarra Kultur Elkartek urteroko babarrun jatea antolatatu du iganderako, hilak 8. Elkartek babarruna eta txerriaren inguruan festa giroa jarri nahi du

bazkariari esker. Bazkaria San Bartolome plazan 14:30ean izango da eta Hauspibarrako kideek prestatuko dute babarrun jatea.

Bazkarira joan ahalizateko txartelak alde zaurretik erosi behar dira herriko Zubiaurre, Sendi-Ekintza eta Atari tabernetan. Helduak 15 euro ordaindu beharko dituzte eta txikiak, berriz, 6 euro.

Hauspibarra kultur elkarteak iganderako prestatu duen festan parte hartzerako gonbidatzen ditu herritar guztiak.



Iaz ere babarruna eta txerriaren festa egin zuten. IDOIALA HILDALGA

Gutunak

Lotsagabea

Euskal hiztegiaren arabera: Lotsagabea=lotsarik ez duena.

Lotsagabea, lotsarik ez duena da. Lotsatzeko inongo arrazoirik gabekoa. Hauxe da zabaldu duzuen panfletoak dioen egi bakarra. Inongo arrazoirik ez dut-eta lotsarik izateko.

Nitaz diozuen gainerako guztia gezurra eta manipulazio hutsa besterik ez dira. Zuen estiloa, jakina!

Non dira zuen sinadurak panfletoan? Lotsa ala?

Egia esan sinadurak gabe ere... guztiok elkar ezagutzen dugu, be-

raz, betikoak zarete! Hurrengo ale edo «panfletoan» egiaztatutako esanak, froga eta agiriak erabiliaz. Alda ezazue informazio iturria, orain duzuen guztiz oker dabil eta... Nahiz eta Udaletik oso-oso gertutik ibili.

Azkenik, panfletoan argazki bat falta da: honen guztiaren atzetik azpizkoko zikinean dabilenarena. Ez al dugu bere soldata ibartarrak guztiok ordaintzen? Ala neu ere oker nago?

Azkenik, hona hemen nire izen-abizenak, inongo lotsarik gabe:

Jon Ander Bastarrika Fernandez. Ibarrako herritar Hamaikabateko zinegotzia.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ezpal gogorreko bi aizkolari handiren jokoia igandean

Aizkora » Mindegiak eta Larretxeak apustua jokatu dute hilaren 8an, igandea, zezen-plazan, 12:00etatik aurrera.

ASIERIMAZ

Aizkora apustu handia jokatu da hilaren 8an, igandean, Tolosako zezen-plazan 12:00etan. 60 urte beteak dituen Mikel Mindegiak botatzen duen erronka Donato Larretxeak onartu zuen duela 6 hilabete. Orain biak irtegora dira plazara, nor baino nor, 60 ontzako 20 enbor ebakitzeko asmoz.

Telebistak zuzenean emango ez duen apustura joan nahi dutenek, 40na euro ordaindu beharko di-

tuzte. Aizkolariak berriz 12.000 euro jokatuko dituzte.

Egur gogorren saltsa

Donato Larretxeak apustua ixterakoan, Tolosako Kantabrikan, Mindegiaren baldintza hau onartu zuen: «Enbor guztiak nik eramango ditut».

Hasiara batean inork ez zion garrantzirik eman honi, edo gutxienez isilean etorri den kontua izan da. Azken egunetan berriz saltsa piztu duen gaia izan da: «Mindegiak egur gogorrak ekarriko omen ditu plazara». Esamesak Zubietan bizi den aizkolariak berak isilarazi zituen: «Bai, egur gogorrak izango dira». Orduan denak Larretxearen gerrietara begira jarri ziren; 10 urte gazteagoa den arren hor baitago

Beran bizi den aizkolariaren ahal-erria.

Desafioaren ateetan egur gogorrek apustua orekatu egin dute. Jakina da Larretxea indarrez gehiagodela. Teknikalderik berriz, argi dago «zaharrak» ez duela aheriorik. Baina zer gertatuko da 2 ordu inguruko proba batean?

Mindegiaren baieztapenak ordubeteko proba bi orduko lehia batean bilakatu du gauetik goizera. Eta hor zalantzak sortu dira. 60 urte eduki arren «plazan beti ongi ibili da iraupen aldetik Ezkurrrako».



«Egur guztiak emango ditu eta ikusi egin behar nolakoak diren»

RUBEN SARALEGI

Aizkolari leitzarra



«Larretxeak irabaziko duela iruditzen zait baina...»

JON REKONDO

Aizkolari leitzarra

» ZEZEN-PLAZAKO AZKEN AIZKORA APUSTUAK

■ **Olasagasti-Azurmendi.** Igeldorarrak 6.000 euro irabazi zituen 2005eko martxoaren 13an. 72 ontzako 14na enbor ebaki zituzten.

■ **Otaño eta Lasa-Olasagasti.** Bikotea nagusi 2006ko apirilaren 9an. 3.000 euro eta sarrearen dirua jokatu zuten. 20 kanaerdiko eta 45 ontzako zutikako 5 enbor ebaki zituzten.

■ **Mindegia-Olasagasti.** 2006ko abenduaren 17an Mindegiak irabazi zituen jokoa zeuden 18.000 euroak. 24na kanaerdiko ebaki zituzten.

■ **Joseba Otaegi-Jon Rekondo.** Zizurkildarrak irabazi zituen 4.000 euroak 2007ko abenduaren 13an. 8 kanaerdiko eta sei 60 ontzako ebaki zituen bakoitzak.



«3 minutuko lana 6 minututan egin behar duzu egur gogorrekin»

JOSEBA OTAEGI

Aizkolari zizurkildarra

Zezen-plazan egongo al zara igandean?

Bai, bai.

Zeinek irabaziko du?

Oso zaila. Ez nuke asmatuko, ez behintzat egur gogorrak emate horrekin. Normalak eman ezkerro Donatok pase gehiago dauka eta bere alde ikusten nuen apustua. Baina egur gogor horiekin jokoia puskatu egingo dela iruditzen zait. Mindegiak berean segiko du eta Donatok ez dakit... zaila.

Zein da egur gogorren esanahia aizkora munduan?

Normalean 60 ontzako egurra ezpal batean ateratzen da. Baina egur gogorra baldin bada aurrena zulo txiki bat bezala egin behar izaten da eta bi ebakitan hartzen da. Egur gogorra izatean, kanpotik begiratu idar gehiago behar duela ematen du baina oso teknikoa da. 60 ontzako normal bat 3 minututan lasai ederrean bota liteke, baina 60 ontzako enbor gogor bat ebakitzeko 6 minutu behar dituzu. Egur guztiak Mindegiak aukeratzen ditu eta azkeneko 6 hilabete hauetan plazara eramango dituen egur-erkin entrentatzen ariko zen. Donato berriz ez. Hori 20 kilometroko korrika apustu batean bezala da. Terrenoak besteak jartzen badu entrentatzen zara, baina azken egunerarte ez dakizu zein terrenotan egingo duzun korri.

«Miel Mindegia aizkora txikiko aizkolaria da»

ANJEL ARROSPIDE » Leaburuko aizkolaria

Desafiora bai?

Bai.

Nork irabaziko du?

Ni Larretxearen alde nago.

Zergatik?

10 urte gutxiago behintzat. Hori diferentzia handia da adin horretan.

Eta egur gogorrak?

Kontuan hartzekoa da. Inork ez genuen espero Mindegiak plazara egur gogorrak emango zituenik. Baina horrelako zer edo zer egin beharra zuela ere ikusten zen. Egur onean golpe handia du Larretxeak eta dominatzen oso zaila da. Mindegia aizkora txikiko aizkolaria da eta lan hori luzatzea ondo iruditzen zait.

Lan luzea, bukatzen lanak.

Bukatuko al ditu bietako batek behintzat... egurrak ikusi arte ez dago ezer esaterik. Gogorrak izan litezke edo ez. Nik ez dut espero plazan, lehen apustu askotan izan diren bezala, ipurdi handirik ikusi dugu. Niri egur *eusik* izango direla iruditzen zait: eman behar-erreak egurrak baina gogor-gogor horietakoak ez direnak.



Gauza bat dago argi. Aizkorari mesede galanta egiten ari zaiola apustu hau.

Horrelako apustu batek beti piztu du aizkora. Aspaldian ez da izan eta faltan botatzen genuen horrelako joko bat. Lehen ere, horrelako apustuak egiten ziren garaian eta sasoiako jendea ginenean, faborea egiten zitzaien aizkorari eta herri kirole orokorrean.



«Egur ona indarrak ebakitzen du eta txarra buruak»

JEXUMARI MUJIKA

Aizkolari ibartarra

Aldameneko herrian egongo al zara igandean 12:00etan?

Bai, bai... dudarik gabe.

Ezkurra ala Arantza?

Konplikatu. Lehen Larretxearen alde nengoen baina telebistan esan zuenez Mindegiak, egur gogorrak emango ditu plazara. Lehen ere Arrospideri berdina egin zion: Anjel puntu hobean zegoenean, egur gogorrak eman eta irabazi.

Lehen zergatik ikusten zenuen faborito Larretxea?

Berarekin erakustaldi bat edo beste egin ditut udan eta oso puntu onean aurkitu dit. Baina Mindegiak berak esan zuen bezala: egur ona indarrak ebakitzen du eta egur txarra buruak.



«Donatok kolpe handiagoa dauka eta Mindegiak iraupena»

UNAI OTAÑO

Aizkolari ibartarra

Apustura joateko asmorik bai?

Oraindik ez dakit zer egingo du dan.

Eta irabazlea nor izango den?

Zaila. Mindegia egur gogorrekin etortzekoa dela entzun dut, lana luzatzea doan seinale. Horrek berari ere kalte egingo dio baina bestearek ere ez zaio komeni.

Zeintzuk dira aizkolari bakoitzaren ezaguerriak?

Donatok egur xamurrekin kolpe handia du; min asko ematen dio egurrari. Mindegiaren taktika hori izango dela pentsatzen dut; berak horrelako kolperik ez duenez lan luzearen bila joango da. Iraupen aldetik gehiago dela uste dut eta horren bila joan nahiko du.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldia

■ **Alegia.** 11:00etan 3. eta 4. DBH ko ikasleentzat *Istripuetan gerta daitezkeen lesioei aurre egiteko preventzio neurriak ezagutaraztea* Rafael Arranazaren eskutik.
■ **Berastegi.** *Amazoniako herrixka ezkutua* eskainiko du Peio Basualdok eskolako ganbaran 21:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** Tolosako Zine-Klubak antolatuta, *Despedidas* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, jatorrizko bertsiotz azpitolatua.

Deialdiak

■ **Leitza.** Aurrera elkarteko bazkideen batzar nagusia 20:00etan: urteroko kontuen balantzea eta onarpena.
■ **Villabona.** I. Euskarazko Bakarriketa Lehiaketa. Izen-ematea udaletxean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Zahar berri. **09:00.** Muka. Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur.
10:00. Gipuzkoa kultura. **10:30.** Abesbatza Lehiaketa **11:00.** Planik bai. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Klipak.
12:30. Wazemank. **13:15.** Klipak.
13:30. Tolosaldean Gaur. **14:00.** Gipuzkoa kultura. **14:30.** Abesbatza Lehiaketa. **15:00.** Planik bai. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Klipak. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Abesbatza Lehiaketa folklore. **18:30.** EH lau haizetara. **19:00.** Organo zikloa. **19:30.** Tolosaldean Gaur **20:00.** Ikusten. *(16:30etik 20:30era bitarteko blokea errepikatuko da, 08:30era arte).

» IRRATIA

Txolarre irratia

10:45-11:00. Argia astekaria.
11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.
13:30-14:00. Albistegia - Info 7.
14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.
17:00-17:45. Musika nobedadeak.
18:00-20:00. Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena).
20:00-20:30. Albistegia, Info 7.
20:30-21:00. Mintzatzen saioa.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Azaroan, mendia protagonista

Tolosa » Aralarra irteera egingo du Oargik, etzi; Mendi Hamabostaldia, argazki lehiaketa,... ere egingo dituzte hil honetan.

ERREDAKZIOA

Etzi, larunbata, Aralarra irteera antolatu du Oargi mendielkartek. Malloko bisitatuko dituzte mendizaleek; horretarako hitzordua 07:30ean jarri dute Oargiko egoitzan. Auto batzuk Gaintza herrian utziko dituzte eta ondoren Albiastu aldera abiatuko dira. Hau izango da irteeraren abiapuntua.

Eta hau izango da ibilbidea, Malloko zeharkatuz: Albiastu (619m)-Urrain (1221)- Alborta (1228)-Tutturte (1282)- Pallardi (1290)-Mendiaundi (1307)-Kurutzega (1308)- Zamarmento (1404)-Intzeko Torrea (Hirumugarrieta) (1430)- Aldaon (1411)-Beoin (1350)- Elizkaitz (1215)-Uni (1205)-Oako Harria (1306)- Artubi (1264)- Balerdi (1206)- Gaintza (388).

Antolatzaileek zortzi ordu inguruko ibilaldia izango dela aurreikusit dute. Interesatuak izena eman dezakete 688698642 telefono zenbakian edo info@oargi.org helbidean.



Malloetan zehar ibiliko dira larunbatean Oargiko mendizaleak. HITZA

Mendi Hamabostaldia hastear Urtero bezala, azarorako mendia ardatz izango duen hamabostaldia antolatu du Oargik.

Material berri eta Bigarren eskuko materialaren merkatu txikia izango da, batetik. Haua azarorearen 29tik abenduaren 8ra arte izango da. Orduetgia, astelehentik ostiralera 18:00etatik 21:00etara; asteburu eta jai egunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

Bigarren eskuko materiala eraman daiteke han saltzeko azarore-

ren 16tik aurrera, astean zehar 19:00etatik aurrera elkartean bertan; 688 698 642 zenbakian eman gote informazio gehiago.

Ohiko azokaz gain hainbat proiektzio ere antolatu dituzte, Christian Ravier (*Mimarera de ver el pirineo y escaladas por el Mundo* abenduak 11), Manu Cordoba, (*Lily Atado*, abenduak 17) Alex Txicon (*Pilar Oeste del Makalu* zehaztu gabe) eta Antxon Zabala (*Eska-*

lada zehaztu gabe) hizlarien eskutik.

Hitzaldi guztiak Oargin bertan izango dira, 19:00etatik aurrera.

Horretaz gain, argazki lehiaketa ere antolatu dute. Gaia, mendia eta natura izango da eta argazkiak Karlis argazki dendan entrega daitezke azarorearen 24a baino lehen (gehienez bi argazki bakoitzeko). Argazki kamera digitala eta mendiko materiala zozketatuko dute.

A Agurrak



Urte askoan!

Ugaitz Muñoa (Irura). Gaur 2 urte. Zorionak!
Eta muxu handi bat etxekoan partetik.

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 2. alea

berriaren
harpidedun eta irakurleek
erdi prezioan **12€**

Bete ezazu **urriaren 18tik 31 bitartean** BERRIAN argitaratuko den **erreserba kupoa** eta utzi zure kioskoan **azarorearen 8a** baino lehen.

BI ASTEREN BURUAN KIOSKO BEREAN JASOKO DUZU LIBURUA.

Laguntzailea: **FAGOR**
www.fagor.com

Aukereta ezazu. Bizi euskaraz **berria**